

PERTSONAIA

Bere bizitza gaizki ezagutzen badugu ere, Joan Antonio Zamakola Euskal Herriaren kulturak sortu duen gizakirik interesgarrien eta bitxienetarikotzat jo liteke. Esandakoaren arrazoia beraren ideiek izan duten eraginean legoke. Zamakola mendebaldeko pentsakerak ezagutu duen historigunerik emankorrenetariko batetan bizi izan zen: XVIII. mendearen bigarren erdian eta XIX. mendearen hasieran. Garai hartan bi mugimendu ideologiko garrantzitsu bat etorri ziren: neokiasizismo politikoa eta erromantizismo historizista. Bi joera ideologiko hauen sintesiak Europako lehenengo mugimendu nazionalista edo abertzaleei bultzada erabakior bat eman zien.

Euskal Herriak, zorionez, Europan ekoizten ari ziren ideia hauen benetako ordezkari bat izan zuen Zamakolarengan.

Joan Antonio Zamakola intelektual liberala izateaz gainera euskaltzale sutsu bat izan zen.

1758. urteko Urtarrilaren 25ean jaio zen Zamakolatarren sortetxean (errota, burdinola, zelaiak eta parrokiaren sepultura zituena) Indusiko auzoan, Dimako elizatean.

Joan Antonio Santiago de Iza Zamakola eta Maria de Ozerinen semea zen; berauek ere hantxe jaioak eta auzokoak. Dirudienez, hiru anaia eta arreba bat izan zituen Joan Antoniok. Santiago, zaharrena, Dima eta Arratiako merinaldeko bikarioa izan zen. Beste anaia bat, apaiza hau ere, Txilera joan zen eta honek ere idatzi omen zituen lan batzuk. Hirugarrena, Simon Bernardo, *Zamakolada* deiakoaren eragilea izatean Bizkaiko Historiaren pertsonai ospetsu bat bihurtu da, eta, azkenik, Ramona.



2

Gaztetan bere gurasoek Muruara (Zigoitiara, Araban) bidali zuten eta Euskal Herriaren Historia eta zuzenbidea ikasi zituen. Bertan, euskal folklore eta herri musikarako (bertsolarien desafioak, dantzaxapelketak) zaletasun bizia piztu zitzaion. Irrintzilari aparta izan omen zen, gainera.

1775. urtean Madrilera joan zen eskribau-plaza bat ateratzera, 1783. urtean bere helburua lortuz. Hiri eta Gortean tertuli gizon amorratua izan zen, kitarrajole eta dantzari bezala nabarmenduz. 1790. urtean Dimara itzuli eta ezkondu egin omen zen. Konbentzioko gerra-garaian Bizkaiko Jaurerriko erregidorea eta Dimako Tertzioen kapitaina izan zen.

DIMAKO INDUSI AUZOA

Bizkaiko Diman jaio zen Joan Antonio Zamakola. 1758an. Bertan zuten Zamakolatarrek beren sortetxea.



BIZKAIA (1769)

Bizkaiko Foru-Artxiboan dago Tomas López-en mapa hau: Zamakola, haurra zela eman zen argitara.



EUSKALTZALE ILUSTRATU BAT

Bai Joan Antonio eta bai bere anaia Simon Bernardo frantsesekin kolaboratzeagatik salatuak izan ziren. Nolanahi ere, 1795. urtean berriz Madrilen zegoen eta han egunkari batzuetan idatzi zuen, ezizen ezberdinak erabiliz: Don Preciso (gehien erabiliko duena), Zocamala Batxilerra, «Estravagantísimo» eta Simeon de Errotakojaunarensesemea.

Jose Bonaparte-ren agintaldian Joan Antonio Zamakolak bere lanpostuan iraun zuen eta, are gehiago, kargu publiko batzuetan parte hartuz. Izan ere, Grefier (edo auzitegiko eskribau nagusia), Tinbrearen idazkari orokorra eta Poliziaren komisaria izan zen, eta Jose Bonapartek kondekoratu zuen. Hau dela eta, armada frantsesa erretiratu zenean Zamakolak atzerrira joan behar izan zuen. Gasteizko guduaren ondotik Frantziara joan zen bere familiarekin. Frantziaren hegoaldeko eskualde eta hiri batzuetan egonda gero, Auch Gers departamentuko hiriburuan jarri zen bizitzen.



ERRET ORDENA (1794)

Zamakolaren garaik aldartetsuak izan ziren politikoki, Iraultza Frantsesa medio. Konbentzioko gerratean euskal politikariak hautapen arriskutsuak egin behar izan zituzten, eta armada errepublikarraren eta Erret Ordenu hauen artean egin aukera. Zamakolak ere bai.



LEHEN EUSKAL HISTORIA NAZIONALAREN EGILEA

Joan Antonio Zamakolaren garrantzi intelektuala lehenengo Euskal Herriaren Historia nazionala berak idaztean datza. Aitzindari bat bazegoen arren (Arnaud Oihenart XVII. mendeko idazle zuberotarra), *Notitiae Utriusque Vasconiae* delakoan, hain zuzen ere, ikuspegi etnikoa baino ez da agertzen. Zamakolaren idazlan nagusiak honako izenburu luze hau du: *Historia de las Naciones Bascas de una y otra parte del Pirineo Septentrional desde sus primeros pobladores hasta nuestros días. Con la descripción, carácter, fueros, usos y costumbres y leyes de cada uno de los estados vascos que hoy existen*. Auch-en 1818. urtean eman zen argitara, Duprat-en inprimategian.

Historiako idazlan honen garrantzia ulertu ahal izateko faktore batzu kontutan izan dira. Lehendabizi, Euskal Herria, XVIII. mendearen bigarren erditik batez ere, zentralismoaren aldetik gero eta eraso bortitzagoak jasaten ari zen. Egoera hau gaizkoatuaz joan zen XIX. mendearen hasieran. Garai honetan «aginte zentrala»ren Zerbitzuan idazlan historiko batzu idatzi ziren, Godoy-ren ekimenaz, alegia: Llorente apaiz frantsestatuaren *Noticias Históricas de*

las Tres Provincias Vascongadas (1806-1808), Madrileko Historiako Erret Akademiak argitaraturiko *Diccionario Geográfico Histórico* (1802), etab. Euskal Foruak eta askatasunak Gaztelako erregeek emandako pribilegioak baino ez zirela frogatu nahi zen idazlan horretan. Eraso zentralista honek Euskal Herriko intelektualen «erreakzioa» sortarazi zuen, Mogel, Astarloa, Francisco Aranguren eta Zamakolarena, hain zuzen ere.

JOSE BONAPARTE ERREGEA

Napoleon-ek Penintsulan ezarritako Dinastia berriaren burua zen «Pepe Botella» gaitzizenez deitua. «Frantsestuen» arrastoan ibili zen Joan Antonio; J. Bonaparte-k ohorezko domina era aman zion.



Zamakola laster konturatu zen euskal Foruen jatorriari buruzko eztabaida, euskaldunek beren historia nazionalik ez izatetik zetorrela. Hori zela eta, Hegoalde eta iparraldeko euskaldunen Historia idazteari gogoz ekin zion, ikuspegi berri eta aurrerazale batetik. Zamakolak uste zuen euskal erakunde politikoen oinarria herriaren gogoan zetzala. Bestalde, euskal sistema politikoa Zamakolak Estatu errepublikarren konfederakuntza bat bezala ikusten zuen, bakoitza bere biltzar propioekin. Euskal demokrazia eta askatasunen sinboloa *Bizkaiko Arbola zen*. Dimakoaren eritziz, euskal gizartearen sistema demokratikoa antzinako komunismo primitibo batetan sustraitzen zen.

Zamakolak, halaber, bere Historian, modu bikain batez, euskaldunen mito edo sinbolo politiko-kulturalen «korpus»a bildu zuen. Sinbolo hauek Erdi Aroan sortu ziren eta XVI, XVII eta XVIII. mendeetan zehar garatuz joan ziren. Euskal sineskizun etnikoak honako hauek ziren: monoteismoa, erromatarrek zapalduak ez izatea, bizkaitarren Jaun Zuriarekin egindako hitzarmena, Bizkaiko burujabetza, etab.

GAZETA DE OFICIO (1810-1813)
Independentzi Gerratea deituan argitara eman zuten hau
agintari frantsesek. Euskal Herriko lehenengo aldizkari ofiziala.

Zamakolaren *Historia de las Naciones Bascas* delakoan European lehenengo pentsakera nazionalista osatu zuten elementu ideologiko guztiak aurki daitezke: herri baten sorrera eta tradizio historikoaren mitoa, sineskizun amankomunak izatea eta auzokoen aurrean komunitatearen goraipamena, nortasun kultural propio bat, lege eta erakunde amankomunetan agertzen direnak eta, bereziki, hizkuntza propio bat izatea.

Zamakola, europazale amorratu bat izan zen, Europaren batasun politikoaren aldekoa, bake iraunkor batetan oinarritua. Plan europazale honen barruan kokatu nahi izan zuen Euskaldunen Historia.



FOLKLOREAREN AITZINDARI

Zigoitian zaletu zenetik, musikari eta dantzari porrokatua bihurtu zela esan dugu. Baina hori baino gehiago izan zen Indusikoa. Folklore hitza eta kontzeptua geroagokoa den arren, J.A. Zamakolak espainiar herri musikan eta dantzan berebiziko eragina izan zuen bere garaian eta geroago ere.

Espainiako herri-kanten biltzailea izan genuen: 1802an D. Preciso-ren izenpean *Colección de seguidillas y canciones Españolas* argitaratu zen Madrilén, liburu ospetsu egin zena.


Herri-kantak bildu ezezik, erizpide garbi bat finkatu nahi izan zuen, egun ere baliagarria datekeena: egilearen eritziz, herri musika eta dantza gainbehera zihoazen, eta berriro jatortasunera itzuli behar zirela aldarrikatu zuen.

Geroxeago, 1824ean, Juan Ignazio *Iztuetak Gipuzkoako dantza gogoangarrien condaira-n* dantza agerikoak moraltasunaren eta antzinakoen bertuteen erakustaile izan daitezkeela dio, Jovellanos eta gure Juan Antonio Zamakola aipatuz. Hain zuzen ere, gipuzkoarrak, bizkaitarra jakintsutzat hartuz, bi aldiz aldatzen ditu bai aipatutako bildumako bai *Historia de las Naciones Bascas*-eko pasarte luze samarrak. Pasarte horietan garaiko musika eta dantzen aurka erasoten du, jatortasunetik aldendu direla eta.

Azkenik, Joan Antonio Zamakolak gure bertsolaritzaren historian ere behar luke bere tokia.

BOTEREAREN HISTORILARIAK

Madrileko Gobernu zentralak sustatu eta lagunduta (Godoy-k bereziki), XIX.aren hasieran Euskal Herriaz garrantziko lanak atera ziren argitara: Llorente-ren hau da adibiderik ezagunena. Erasoan zetozen hauei erantzun egin behar izan zitzaien: Arangurenen hau da bat, eta Zamakolarena dator geroago (1818).




EUSKARA GORAIPATZEN

Joan Antonio Zamakola ezezaguna dugu euskararen ideologoen artean eta, oro har, gure hizkuntzaren historian.

Intelektual liberala izanik euskeraren goraipatzaile izan zen aldi berean. Izan ere, Frantses Iraultzan zituen bere sustraiak, eta handi-mandika liberala dei genezakeen joeraren barruan egon ziren Euskal Herrian intelektual batzuk, beren buruak euskaltzale bezala agertu zituztenak: adibidez, eta gure J.A. Zamakolaz gainera, Don Sanadon edo *Essai sur la noblesse des Basques*-en egilea, D'Iharze de Bidassouet, Iztueta, etab. Euskaltzaletasunean bereizten da, bada, garai hartako Espainiako beste liberal batzuetatik: *Diccionario Histórico-Geográfico*-ko egileentzat bezala, liberal hauentzat euskara hizkuntza landugabea zen, idazteko gai ez zena. Hauek gaitzesten eta erdeinuz betetzen zuten bitartean, J.A. Zamakolak euskara gorapaitu egiten du bere liburuetan, etxekoei eta kanpokoei euskaldunen hizkuntzak dituen balioak erakutsi nahiz.

BIZKAIKO HISTORIA (1790)
Iturrizaren obra klasiko hau, Zamakolaren belaunaldiaren Kezka historiografikoek eztenkatuta idatzi zen, zalantza betetako etorkizunaren aurrean ere iraganean argiak bilatu nahirik.

J.A. Zamakolaren eritziz, euskararen beheraldia eta egoera jausia euskaldunek beren hizkuntzaren balioaz ordurarte jabetu ez izatetik zetorren. Aberatsek beren seme-alabei erakutsi nahi ez dietelako, edo pobreek haiei jarraituz, beraiek baino gehiago dakitela uste izanik. Eta beraz, J.A. Zamakolak, jakinezaz seme-alabei asaben hizkuntza irakasten ez dietenen jokaera gaitzesten du. Baina Pedro Pablo Astarloaren obra handiek ezjakintasun hau astindu omen zuten, euskaldunei berauen hizkuntzaren balioak erakustean.



Historia de las Naciones Bascas-eko kapitulu batetan, «Lengua de los Bizcaynos», Court de Gebelin-en eritzia jasotzen du, hots, hizkuntza batek herri baten nortasun agiri eta historiaren erakusle izan behar duelakoa. Adibidez, Errok dio: la lengua, *archivo de las prácticas políticas y morales de los pueblos (El mundo primitivo, 1815, XIX).*

Erizpide hauek bere pentsamoldearen arabera aplikatzen dizkio euskarari. Adibidez, euskarari isladatzen dira, Indusikoaren ustez, iraganaldiko euskal errepublika eta federaziopekoen edo lehendabiziko gizakien bertuteak. Ilustrazioak ekarritako gaitzen aldean eredu direnak. Euskara hizkuntza demokratikoa eta igualitarista da Zamakolarentzat: adibidez, «eztok eta

baidok» edo hitanoa baino ez omen dago, sartuberria den zuka era onartzen delarik, baina ez «berorika», jatortasunaren eta euskaldunen arteko berdintasunaren izenean baztertu behar omen dena. Bestenaz, J.A. Zamakola ez da hizkuntzalari bat, eta, areago, euskarari buruzko ideiak ez dira gehienbat bere burukoak.

HISTORIA DE LAS NACIONES BASCAS
Hau da Zamakolak euskal Historiografiari eskaini zion ekarririk nagusiena. Bere elbestealdian eman zuen argitara (Auch, 1818).

BILBO (XVIII.aren azkenetan)

Zamakolak ezagutu zuen Bilbo honela ageri da garaiko grabatu honetan: merkataritza eta itsasgizonen hiria.




ASTARLOAREN ZABALTZAILE

Pedro Astarloaren ideien zabaltzaile dugu. Hain zuzen ere, haren hilburukoan Juan Bautista Erro eta gure J.A. Zamakola izendatzen dira oinordeko. *Historia de las Naciones Bascas-en Apologia-ko* (1803) hirugarren parteari jarraitzen zaio. Durangarraren ideia nagusia jasotzen du, hots, euskaldunen hizkuntza soilki izan zitekeela, bere antzinatasun eta letra, silaba eta hitzen esanahiagatik, antzinako edo hasierako hizkuntza bakarra edo horren alabakia.

Ondoren, euskararen perfektutasunak erakutsi nahi ditu alfabetoan, hitzen egitura eta analogiazko esanahian, silaba eta hitzen ugaltasunean, atzizki eta deklinabide deitzen ditugunetan, artikuluetan, generorik ezean, 206 aditz-jokoetan, bereziki hitzen ordenan, eta lehendabiziko gizakiek beren premietarako sortutako hitzen antzinatasunean. Euskal aditz-joko edo irabiakerari buruz, eta besteen eritziaren aurka, erraza omen da berori. Erakusburu gisa, aditz laguntzailearen forma nagusiak dakartza, bizkaieraz, esandako «Lengua de los Bizcaynos» kapituluari.

FOLKLOREAZ

Zamakola bizkaitarra (= D. Preciso) eta Iztueta giputza bezalako folklorezaleek lan ederrik franko egin zuten XIX. mendean herriko ohitura, kanta eta jakituria jasotzen.




10

Euskal hitzen garbitasun eta honestasunak (euskaraz ez dagoela berba txarrik, alegia), abereak izendatzeko hitzek, Espainiako pertsona-izenek eta abarrek hizkuntza honen antzintasuna erakusten omen dute. Halaber euskara naturaren hizkuntza omen, eritasun eta berauek sendatzeko landare izenetan, maitasun eta sendimendu adierazpenetan ere oparoa delarik.

1822an, liberalen hiru urteko agintaldian, J.A. Zamakolak liburuska bat argitaratu zuen Bilbon, bere *Historia de las Naciones Bascas*-eko esandako kapituluaren laburpen dena, bere izen abizenen hasiera-letraz: *Perfecciones analíticas de la lengua bascongada. A imitación del sistema adoptado por el célebre idiologista D. Pablo Pedro de Astarloa en sus admirables Discursos filosóficos sobre la primitiva lengua: por D. J.A. de Z. Año de 1822.*



Izan ere, P.P. Astarloaren obra nagusiak, *Discursos Filosóficos sobre la primicia de la lengua* delakoak, itxaropen handiak sorrerazi zituen hemen eta Europan, baina Juan Bautista Erro atzerritatuaren eskutan geiditu zen eta horregatik erabaki bide zuen J.A. Zamakolak haren berri ematea.



HIZKUNTZAREN DEFENTSAN

Hizkuntzaren ohoretan, defentsan eta berorren aldeko ideologia eta jarrerak lantzeko honelako lanak kaleratu ziren XIX. mendearen hasieran, Euskal Herriak bizi izan beharko zuen krisi sozio-kultural larriaren atarian. Zamakolaren hizkuntz lanak ere testuinguru honetan eman behar dira.



ORTOGRAFIAN ERAGILE

Bere maisuari jarraituz, euskal alfabeto autonomo —gaztelaniarekiko— bat bultzatu nahi izan zuen. Areago, J.A. Zamakola euskal ortografian eman ziren erreformen eragile gertatu zen. Adibidez, Pedro Antonio Añibarro eta Juan Mateo Zabala bizkaitar idazleak, *y*, *k*, *b*, (azken hauek betiko gelditu direnak) idazten hasi ziren. Lehenengoari dagokionez (*yan*, *yausi*) Añibarro arratiarrak Indusikoa aipatzen du adituen artean, Larramendi, Kardaberaz eta Hervas-ekin batera, euskara sartu den «ja-je-jia» gaitzesterakoan.

PABLO ASTARLOA (1752-1806)

Bere belaunaldian itzalik handiena izan zuen euskalaria dugu Astarlo: zientziaurreko ahaleginak izan ziren harenak, baina garaiko euskaltzaleei segurtasun ideologiko bat eman zien Astarloaren lanak. XIX. Mendean beste herri askotan gertatutakoen antza du gurean Astarloarenak.



APOLOGIA DE LA LENGUA BASCONGADA
Madrilen kaleratu zen obra hau (1803), ata Histori Akademiaren *Diccionario geográfico-histórico de España*-ri (1802) erantzun nahi izan zion beronen bidez Astarloak, euskararekikoak zuzendu nahiz.

W. von HUMBOLDT (1767-1835)

XIX.aren atarian etorri zitzaigun Euskal Herrira jakitun aleman hau: garaiko hainbat euskalarirekin izan zuen harremanik; honi zor diogu, neurri on batetan, euskara Europako hizkuntzalari aurreratuenei, modu itxuroso batean, aztergai errespetagarritzat proposatu izana.



11


ONDORIOAK

Joan Antonio Zamakola ondasun etnografikoa nazional bihurtzeko bideetatik abiatu zen, berea neurri handi batean lortuz, bere garaiko baldintza ideologikoen arabera. Zamakola liberalismo eta lehen erromantizismoaren elementuen bilketa eta sintesi bat egiten saiatu zitzaigun. Izan ere, sintesi honetatik sortu ziren Europako lehen nazionalismoak. Horrexegatik pozik egon gintezke euskaldunok Zamakolagan euskal nazionalismoaren aitzindari bat izan dugulako, eta hain zuzen ere Europako beste herri eta nazio txikiek beren ohitura, hizkuntza eta askatasun propioak defendatu eta estatu nazional handiak sortu eta sendotzen ari ziren momentuan.

Testuinguru hau kontutan izanik hobeki uler genezake Zamakolak euskararen izan zuen interesa, berea lehendabiziko eraso kultural eta politikoak jasaten ari zen herri baten nortasunaren adierazgarri nagusia baitzen eta, beraz, naziogintzarako beharrezko tresna. Zamakolak nazio-hizkuntzaren beheraldi eta egoera jausituaren arrazoia euskaldunen ezjakintasunean aurkitzen zuen eta berori gaiditzeko Pablo Pedro Astarloaren ideiak zabaltzeari ekin zion, euskararen berezitasunak

goraipatuz. Arlo honetan ere ilustrazio arrazionalista eta aurre-erromantizismoaren elementuak biltzen ditu.

Ulegarria da, beraz, euskal nazionalismoaren eraikitzaileak, Arana Goiri'tar Sabineek, Joan Antonio Zamakolaren ideietan edan izana.



PERFECCIONES ANALITICAS (1 822)

Garaiko joerei jarraiki, Zamakolak ere, hizkuntzaren barne-«balioen» gain jaso zuen euskararen aldeko bere defentsa, euskal berezgarritasun asko (Foruak, hizkuntza, ohiturak, sineskizunak...) ofizialki zalantzetan jartzen ziren urte haietan.

